

zu ni zeranean mintzatuko gara, erantzun bakarra. Baina, usteak uste, bibliografietan ere hain jaramon guti egin zaion Féliz de la Fuente Marquínez de Beltrán-en *Universitas*-i inork uka ezin bere universaltasuna, izenburuak dionez eta eduki-naren poliglotasunagatik.

ETXERAKO DIRUA?—Donostiago Aurrezki Kutxak bi-deetan «Etxerako dirua» eskaintzazko iragarkiak jarri ditu aurten. Izan ere, krisi luze honen ondorean holako laguntza beharrezkoa zen.

Aurrezki Kutxa horren zenbait sukurtsaletan txanda har-tzean izan dira istiluak eta atsekabeak. Etxerako dirua jasotzeko asmoan joan eta eman ez. Zelako desiluzio. Etxerako ez, etxearentzat eskaintzen omen da, eta ez errediturik gabe. Hor ba; ustea, erdi ustela.

TRADUCCION SIMULTANEA.—Roiz Olabeguenagakoaren ustez, «traducción simultánea»-ren erabileran, euskaldunok ez omen diogu katalanei zorrik. Haien teknikak hainakoak edo hobeak omen dira hemengoak.

Justo Egiategi, harri eta zuhur: Hala diotenez, egia izanen da. Diferentzia bakarra, hango politikoez itzulpen simultaneo-a erabiltzen dute katalanetik gaztelerara eta hemengoek aldiz gazteleratik euskarara.

Nork esan du euskarari aukerarik ez zaiola ematen?

ASTERIX KOMIKIAK ETA G. ARESTI.—Aurtengo apirilaren 12an, adiskide Angel M. Ortiz Alfau-k «Miscelanea vasca» zeritzan artikulua bat argitaratu zuen Bilboko *El Correo Español*-en, beste zenbait gauzaren artean Gabriel Arestik